

Funtzesko elkarteak

Gure kafetegiaren hornitzaile handiena “Tuinkis American Market” da. Denda horretan, gozoki amerikarrak saltzen dituzte, eta beraz, denda horretatik gozoki kantitate handiak erosten ditugu, rappelak eta deskontuak aplikatzen, ondorioz salmenta-kostua murrizten da. Denda honetan erosten ditugun produktuak gure postreak egiteko edo bersaltzeko dira.

Beste aldetik, Vodafone-kin akordio bat daukagu. Akordio honetan, wifi potente bat eskaintzen digute gure bezeroek ez izateko arazoak lan egiteko orduan. Wifia prezio baxu batean ematen digute, eta zeren eta guk Vodafone konpainia promozionatzen dugu gure kafetegian.

Amaitzeko, beste akordio bat daukagu enpresa batzuekin. Gure lokala 2 pisu ditu: beheko pisua konsumitzeko da, eta goikoa berriz, lan egiteko, irakurtzeko, ikasteko... da, coworkin eremu bat. Bigarren pisuan bilerak egiteko gela bat daukagu, baina zerbitzu hau aurretik erreserbatu behar da, eta pagazkoa da. Enpresa batzuekin akordioak ditugu gela hau aldi askotan erreserbatzeagatik, eta horren ondorioz, deskontuak dituzte zerbitzu hau erostean.

